

## Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

**170. zenbakia****Data 2013-09-06****28 orria**

---

**7 Udal Administrazioa**  
**BEIZAMAKO UDALA**  
**Udal lokalen erabilera.**

---

BEIZAMAKO UDALA.

Iragarkia

Kontuan harturik behin behineko izaerarekin 2013ko maiatzaren 20an izandako osoko bilkuran onartu zela Beizamako udalaren lokalen erabilera araudia, 2013ko ekainaren 10ean Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zelarik, egokituz gero alegazioak aurkez zitezten 30 eguneko epean.

Aipatu epean ez da alegaziorik izan eta hori dela eta ondoren jasotzen den testuarekin behin betiko izaeraz onartua geratu da araudia.

**Beizama**, 2013ko abuztuaren 14a.—Begoña Garmendia Vazquez, alkatea. (8073)

**HERRIKO LOKALEN LAGAPENA**

*Lehena:* Ondoan adierazten diren udal jabariko lokalen prekariozko lagapena onartzea.

*Bigarrena:* Lagapenaren iraupena urtebetekoa izango da, eta urtero berrituko da, beti ere lagapena oinarritu zuen arrazoia edo jarduera iraunduz gero.

*Hirugarrena:* Udal jabariko lokalak erabiltzeko behar berriak sortuko balira, eta jadanik daudenekin bateraezinak izango balira, kasu horretan udalak hartuko du azkeneko erabakia, interesatuak aurretik kontsultatuko dituelarik,

**GAZTEEN LOKALA**

*Xedea:* Herriko gazteak bildu eta jarduerak garatu.

*Tokia:* natur eskolako hirugarren solairua.

*Erregimen ekonomikoa:* Dohain.

*Baimendu/ erantzuleak:*

**ARAUDIA**

Xedea.

Beizamako Udalak, herriko gazteriaren egoera aztertuta eta beraien beharrak asetzeko azpiegitura egokiak ez daudela ikusita, Natur eskolako hirugarren solairuko lokala uzteko erabakia hartu du. Prozesu parte-hartzaile baten ondoren eta gazteekin bilerak egin ondoren, honako arauak finkatu dira lokalaren funtzionamendurako:

Adina.

— 12 urtetik 22 urte artekoentzat izango da lokala, hasiera batean.

— Etorbizunean adin honen aldaketa aztertu daiteke baina inoiz ez da izango 12 urtetik beherakoentzat.

Erabiltzaileen betebeharrak.

Lokalean dauden eta giltza duten gazteen ardura izango da lokalaren egoera momentu horretan. Norbait lagunekin edo beste herrietako gazteekin joan bada lokalera, bera izango da pertsona horien guztien arduradun bertan dauden bitartean.

Gazte bakoitzak giltza bat izango du; haien ardura izango da lokala itxita eta txukun uztea, kalefakzioa eta aire egokitua itzaltzea, zaborra ateratzea eta beharrezkoa den beste edozein lan egitea.

Giltza ezin izango zaio inori utzi, ezta familiako beste gazteei ere.

Oinarrizko txukunketaz eta garbiketaz arduratzea; hau da, erabiltzen duena eta zikintzen duena jaso eta garbituko du egunero.

Komuna eta lokala txukun eta garbi egoteko gazteak beraien artean antolatuko dira eta beraien ardura izango da.

Ura, argia, berogailuak etab. modu egoki eta zentzuzkoan erabiltzea.

Gazte ordezkariak.

Lau gaztez osatuko da, eta, printzipioz, bi neska eta bi mutil egon beharko dute. Horietatik 2 edo 3 helduenetakoak izan behako dute.

Lokalaren arauak izango dira gazte ordezkarien jardueraren ardatza eta, horrez gain, eginkizun hauek kudeatuko ditu:

— Udalarekin harremanak.

Sor litezkeen arazo edo gorabeheren kudeaketa.

Gazte ordezkariak lokalaren erabiltzaileek horrela adosten dutenean aldatuko da; hala ere, ezingo dira txandakako epe motzak antolatu, adibidez hilabetean behin aldatzea.

Udalarekin dituzten harremanen barruan, gazte ordezkariak herriko azpiegiturak erabiltzeko eskaerak egin ditzakete, ekintzak edo emanaldiak antolatzeko, beti ere udalari baimena eskatuz gutxienez 3 egun aurretik.

Lokaleko arauak.

Gutxienez giltza duen gazteren batek egon behar du beti lokalean jendea dagoenean (ezin da atea ireki eta apuntatuta ez dagoen jendea bakarrik barruan utzi).

Edozein gorabehera gertatzen bada, gazte ordezkariaren bati jakinaraziko zaio eta hark hartuko ditu hartu beharreko erabakiak, dagokion kasuan udalarekin kontsultatuz gero.

Gazteren batek giltza galduz gero, beste kopia bat eskatu beharko du udaletxean, eta 10 euro ordaindu beharko ditu kopia hartzeko.

Lokalaren tamaina kontuan hartuta, barruan ezin dira kaleko hainbat jolas egin; hala nola, baloiarekin jolastu, korrika egin.

Lokalean ezingo da animaliarik sartu.

Lokalaren eta eraikinaren sarrera-irteera libre egon beharko du beti, inongo trabarik gabe. Segurtasun neurri hori

oso garrantzitsua da.

Orokorrean, lokalean ezin da gauetan lotan gelditu. Egoera berezietan (jaiak), lo egiteko erabili ahal izango da, beti ere aldez aurretik udalari eskatuta eta honek baimenduz gero.

Garbitasuna.

Lokala erabiltzen dutenek garbi utzi beharko dute egunero; hau da, gauzak jasota, mahaiak garbi eta erratza pasata.

Komunaren erabilera- eta garbiketa-irizpideak gazteen lokalaren eta gainontzeko lokalen erabiltzaileen artean adostuko ditugu.

Kalteak.

Kalteren bat gertatzen denean, gazte ordezkariak Udaleko ordezkariari komunikatuko diote.

Kexak, iradokizunak etab. gazte ordezkariak kudeatu eta komunikatuko dizkiote Udalari.

Ordutegia.

Ordutegia honako hau izango da:

Ikasturtean zehar, ohikoa 21:30 bitarte eta ostirala eta larunbatetan 01:00 bitarte.

Udan: Ohikoa 23:00 bitarte eta ostirala eta larunbatetan 01:00 bitarte.

Bestetik, bizilagunak eta arau minimo batzuk errespetatuko dira (soinua etab.). Hala ere, egoera berezietan eta aurretik udalari jakinaraziz gero, ordutegia luzatu ahal izango da, beti ere bizilagunak errespetatuz.

Ekipamendua eta gastuak.

Udala arduratuko da argia, ura eta bestelako gastuak ordaintzeaz, baita erabilera normalarengatik gertatzen diren apurketak konpontzeaz ere.

Erabilera txarra edo zatarra egiteagatik gertatzen diren apurketak gazteek konpondu beharko dituzte, eta beraien ardura izango da beraien artean antolatzea (zeinek puskatu duen jakin etab.) beharrezkoa ikusten badute. Kasu horretan, Udalak exijituko duena konponketa izango da, eta horri talde bezala egin beharko diote aurre gazteek.

Udalak lokala hutsik eta garbi utziko du, mahai batekin eta aulki batzuekin bakarrik. Hortik aurrera lokala gazteek osatuko dute beraiek nahi duten moduan. Hala ere, gaur egun dagoen tresneria lokalaren bazter batera eramango da, eta lokalaren erabiltzaileek errespetatuko dute.

Lokalaren barruan ezingo da sukaldatu ezta sua erabiltzen duen gailurik sartu (sukaldeak, kanping-gasa, Vitroceramicak). Ezta arriskutsuak izan daitezkeen materialak eta gailuak ere.

Udalaren ahalmenak.

Lokala Udalarena da eta berak du azken erabakia edozein gairen inguruan.

Bizilagunen kexak jasoko balira edo erabilera txarrak gertatuko balira, Udalak aukera izango du ordutegiak finkatzeko edo aldatzeko, lokala denboraldi batez ixteko edo lokala berreskuratzeko.

Etorkizunean Udalak lokala beharko balu, aukera izango du lokala hustutzeko epe bat emanda, lokala berreskuratzeko.

Udalak lokalaren barne ordenari eta garbitasunari buruzko kontrol eta ikuskapen funtzioak betetzeko eskubidea erreserbatzen du. Hau dela eta, Udalak bertara sarrera libre izango du.

## UDALETXEKO GOIKO SOLAIRUKO GANBARA HANDIA (Ezkerraldekoa): ERABILERA BAIMEN BALDINTZAK

*Ordutegia:* Ostiraletan arratsaldeko 16:00tik 20:00arte.

*Xedea:* Pintura eta eskulanak egiteko.

*Tokia:* udaletxe goiko solairuko ganbara hadia(ezkerraldekoa).

*Erregimen ekonomikoa:* Dohain.

*Baimendu/ erantzuleak:* Eva Serna eta Idoia Leonet.

— Jarduera aldatu nahiko balitz, baimen hau indargabetuta geratuko da, eta beste eskaera bat luzatu beharko dute zesionarioek. Berdin, ordutegia edo egutegia aldatu nahi izanez gero, baimena eskatu beharko zaio udalari.

— Zesionarioek eraikina modu egokian erabili beharko dute eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalari lehenbailehen jakinarazi beharko die.

— Udalak, erabilerak sorturiko kontsumo arruntetik sortutako gastuak ordainduko ditu. Hala ere, hornikuntzetatik (argindarra, berogintza) sorturiko gastuetatik erabilera ezohikoa ondorioztatuko balitz, udalak diferentzia eskatu ahal izango die erabiltzaileei.

— Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkua bada, Baimendu-erantzuleek bere gain hartuko dute.

— Zesionarioek edozein obra egin nahiko balute, udalaren baimena beharko dute.

## UDALETXEKO 2. SOLAIRUKO ESKAILERA ONDOKO ESKUBIKO GELA: ERABILERA BAIMEN BALDINTZAK

*Ordutegia:* Ostiraletan arratsaldeko 17:30tik 18:30arte.

*Xedea:* Haur txokoa.

*Tokia:* udaletxe goiko solairuko eskailera ondoko eskubiko gela.

*Erregimen ekonomikoa:* Dohain.

*Baimendu/ erantzuleak:* Alejandro Monasterio - Eva Cruz Serna Gurasoen Izenean.

— Baimena bertan behera geratuko da, jarduera aldatu edo egutegi edo ordutegia aldatuz gero.

— Zesionarioek eraikina modu egokian erabili beharko dute eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalari lehenbailehen jakinarazi beharko die.

— Udalak, erabilerak sorturiko kontsumo arruntetik sortutako gastuak ordainduko ditu. Hala ere, hornikuntzetatik (argindarra, berogintza) sorturiko gastuetatik erabilera ezohikoa ondorioztatuko balitz, udalak diferentzia eskatu ahal izango die erabiltzaileei.

— Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkoa bada, Baimendu-erantzuleek bere gain hartuko dute.

— Zesionarioek edozein obra egin nahiko balute, udalaren baimena beharko dute.

#### NATUR ESKOLAKO 1. SOLAIRUKO EZKERREKO LOKALA: ERABILERA BAIMEN BALDINTZAK

*Ordutegia:* Astelehen eta asteazkenetan arratsaldeko 19tik 20ak arte.

*Xedea:* Yoga klaseak.

*Tokia:* natur eskolako 1. Solairuko ezkerreko lokala.

*Erregimen ekonomikoa:* Dohain.

*Baimendu/ erantzuleak:* Hirusta Elkarte.

— Baimena bertan behera geratuko da, jarduera aldaketa edo egutegi edo ordutegia aldatuz gero.

— Zesionarioek eraikina modu egokian erabili beharko dute eta ekipamendu edo instalazioen akats edo matxurarik gertatzen bada, Udalari lehenbailehen jakinarazi beharko die.

— Udalak, erabilerak sorturiko kontsumo arruntetik sortutako gastuak ordainduko ditu. Hala ere, hornikuntzetatik (argindarra, berogintza) sorturiko gastuetatik erabilera ezohikoa ondorioztatuko balitz, udalak diferentzia eskatu ahal izango die erabiltzaileei.

— Ekipamendu edo instalazioen matxurei dagokienez, matxura erabilera arruntetik sortutakoa bada, Udalak bere gain hartuko du. Aldiz, erabilera desegokiaren ondoriozkoa bada, Baimendu-erantzuleek bere gain hartuko dute.

— Zesionarioek edozein obra egin nahiko balute, udalaren baimena beharko dute.